

Lasarte-Oriako kultur eragile eta sortzaileen errealitatearen argazki bat

2022ko maiatza

herri
gin
tzen

ikasi > sortu > hausnartu > elikatu >

*Nolako Lasarte-Oria
nahi eta behar dugu?*

1. Sarrera

Lasarte-Oriako EH Bildun Udalgintza Herrigilearen ereduari ari gara lanean. Udal eta herri eragileak hartu emanean, bakoitzari dagokion arduratik eta herritarrek dituzten beharretatik abiatuta lan egin nahi dugu.

Hori dela eta, Lasarte-Oria EH Bilduk 2020an ekin zion *Herrigintzen* dinamikari. Gure herrian, arlo bakoitzean, ditugun beharrak identifikatu eta nolako herria, nolako Lasarte-Oria nahi eta behar dugun hausnartzeko helburuarekin antolatu genituen lau mahai-inguru sorta.

Hasitako bideari jarraipena emateko, ikasturte honetan, 2021eko irailean, hain zuzen, herriko kultur eragile eta sortzaileen errealitatea ezagutzeko lanari ekin genion. Helburu zehatza honako hau izan da: kultur eragile eta sortzaileen beharrak identifikatzea eta soluzio posibleak jasotzea.

Bide horretan, 2022ko otsailean eta martxoan zehar, zenbait kultur eragiletako kide eta sortzaileekin elkarrizketak izan ditugu, banaka zein taldeka. Guztira 30 lagunekin egin ditugu elkarrizketak.

Dokumentu honetan, elkarrizketa horietatik ateratako ondorioak jaso ditugu. Aurrera begirako lanean urratsak emateko tresna izango da honako txosten zirriborro hau.



Nolako Lasarte-Oria nahi eta behar dugu?

2. Herriko kultur eragile eta sortzaileen egungo errealitatea

Herriko kultur eragile eta sortzaileekin egindako kafe-hartze eta elkarrizketetan honako bi galdera hauen baitan hitz egin dugu: batetik, zein diren haien jarduna aurrera eramateko dituzten arazo eta oztopo nagusiak; eta, bestetik, zein urrats izango liratekeen egokiak haien jarduna sustatzeko.

Elkarrizketetatik jasotako informazio guztia jaso dugu eta honako hauek dira ondorioak.

HERRIKO KULTUR ERAGILE ETA SORTZAILEEN BEHARRAK

1. Espazioak

Espazio falta dute

- » Beste herrietara joaten dira ensaioak egitera, espazioak lortzeko erraztasuna ematen dizkietelako.
- » Oztopoak dituzte udalaren partetik.
- » Lokalak alokaturik dituzte.
- » Publikoak, ez lehen ezta orain ere, ez ditu behar dituzten baliabideak eskaini.
- » Espazio falta dute ensaioetarako eta espazio egokiturik ez.
- » Lanabes falta.
- » Fisikoak, ez dago lekurik ez aurre lanak egin ahal izateko ezta hauek erakutsi ahal izateko ere.
- » Espazio arazoak izan dituzte taldean asko direlako. Pandemian zehar distantzia mantentzeko lekurik ez zutenez espazioa eskatu zuten baina ez zitzaion erantzun eskaerari behar bezala.
- » Gaur egun jarduerak espazio publikoan edo herritik kanpo lortutako laguntzekin burutzen dituzte.
- » ...

Herrian dauden espazioak erabiltzeko zailtasunak

- » Espazioak badaude, ez dago irisgarritasunik.
- » Espazioa egon badago, baina ez zaio erabilerarik ematen.
- » Informazio falta dago espazioen erabilerarekin.
- » Figurarik ez espazioen kudeaketarako.
- » Kultur etxeko espazioak (dantza aretoa, esaterako) erabiltzeko zailtasunak (behin kobratu egin nahi izan zioten).
- » Espazioak erabiltzeko oztopoak dituzte etengabe; erraztasunak jarri behar dira udalaren partetik.
- » Herriko espazioetan gauzak antolatzeko oztopoak jartzen dituzte.
- » ...

Gaur egungo lokalen ezaugarriak ez dira erabat egokiak

- » Lokalak ez daude egokituta.
- » Erakusketa gela, esaterako, ez da profesionala. Atezaintza eskatzailearen esku geratzen da soilik.
- » Gaur egun Lasartek eskaintzen dituen baldintzek ez dute laguntzen, inondik inora, taldeek aurrera egiten.
- » Lasarte-Orian ez da taldeekin ensaio gela sortze prozesua egin, eta orain ensaio gelak berriak izanda ere ez die beharrei erantzuten.
- » Bilera gelak falta dira.
- » ...

4 Lasarte-Oriako kultur eragile eta sortzaileen errealitatearen argazki bat

Espazio alternatiboak falta dira

- » *Udaleko espazioez gain, espazio alternatiborik ez dago.*
- » *Espazio autogestinatuen falta dira.*
- » ...

Gaztelekuko kudeaketa

- » *Gaztelekuaren egutegia eta ordutegiak: gazteak libre daudenean gazte lekua itxita dago.*
- » *Musika taldeko materiala uzteko ordutegiak izaten dituzte, askotan ez dute bat egiten kontzertu orduekin.*
- » ...

2. Kudeaketa eredua: Udalarekin harremana

Azpikontrazioa: Udalak hainbat zerbitzu azpikonttratatu ditu

- » *Lasarte-Oriako dantza eskolaren kudeaketa txarra: ETT batek kudeatzen du.*
- » *Azpikonttratetara asko jotzen da (gaztelekuko ikastaroak, kultur programazioa...).*
- » ...

Udalarekin harremantzeko zailtasunak eta informazio eza

- » *Informazio falta dute.*
- » *Udalaren partetik etengabeko oztupoak.*
- » *Informazioa falta dago nora jo jakiteko: erreferente falta.*
- » *Kultur Etxetik haiekin harremana egitea faltan botatzen dute.*
- » *Udalarekin ez dakite nola harremandu: norekin hitz egin, nora joan...*
- » *Alternatiboa denari oztupoa jartzen diote.*
- » ...

Udaleko langileak

- » *Langileen borondate falta.*
- » *Pertsonal falta dago.*
- » *Borondatea falta da langileen partetik.*
- » *Udaleko langileak trabak jartzen dituzte etengabe (kudeaketa oztupoak). Udala eta kulturgileen artean deskonexioa dago.*
- » ...

Prozedura administratiboak

- » *Prozedura administratiboak korapilatsuak dira.*
- » ...

Proiektu kulturak herrian antolatzeko zailtasunak, proiekturik eza

- » *Pereza ematen du herri honetan proposamenak egitea.*
- » *Proiektu kulturalak abian jartzeko saiakerarik ez dago, ez da sustatzen.*
- » *Erabiltzaileak ez dira kontuan hartzen.*
- » *Udaletxearen pegak direla eta, Lasarte pobreago bat bilakatzen ari gara.*
- » *Udalarekiko harremana zaila denez, herri mugimenduak “paso” egiten du; ez dute horretan indarrik galtzen.*
- » ...

Erakusleihen falta: haien jarduna ikusgarri egiteko tresnak falta dira

- » *Erakusleihoak falta dira.*
- » *Herrian azoka egiten denean, maiz, ez dituzte herriko artisauak kontuan hartzen.*
- » ...

3. Udalak kulturari ematen dion balioa

Udalak kulturarekiko duen ikuspegia eta jarrera

- » *Sormena ez dago baloratuta.*
- » *Kultura elitista sustatzen du Kultur Etxeak.*
- » *Kultur programazioan dantzak presentziarik ez, oro har kulturen apusturik ez da egiten.*
- » *Udalak esfortzu gutxi egiten du dantza programatzeko (dantza zirkuitua soilik eta EJren diru laguntzarekin).*
- » ...

Udalak sortzaileekiko duen harremanean zaintza falta da

- » *Sortzaileek joan behar dute udalera, ez dago alderantzizko harremanik.*
- » *Udalak ez ditu herriko sortzaileak zaintzen.*
- » *Udalak interesik ez du adierazten (maitasuna).*
- » *Haien lana ez du balioan jartzen.*
- » *Komunikazio eta zaintzarik ez du egiten Udalak.*
- » *Ez dute dirurik eskatzen, baina aintzat hartzea eta errespetuzko tratua faltan botatzen dituzte.*
- » ...

Kultur plangintzarik ez dago

- » *Ez dago herriko kultur gile eta sortzaileen mapa ikusgarri bat (metroetako mapa moduko bat, zein diren eta non dauden kokatuta adierazteko).*
- » *Lanabes falta: proiektuak eta plangintzak falta dira.*
- » *Udalak ikuspegi zabalago bat beharko luke kultur agenda betetzeko garaian.*
- » ...

4. Dirulaguntzak eta aholkularitza

Aholkularitza jasotzeko beharra

- » *Sorrera prozesuan aholkularitza jasotzea, departamentutik udalak eskeintzen dituen baliabide guztiak eskeintzea eta horien berri ematea.*
- » *Amateur arotik semiprofesional bidean....gaur egun kontzertuak egin ahal izateko, altak, bajak... egin behar dira; talde eraketan bidelaguntza.*
- » *Ez du esan nahi zerbitzu bat ireki behar denik, baina astean ordu batzutan aholkularitza eskaintzea. Sortze prozesuan dauden taldeei bultzada emateko ezinbestekoa dela ikusten dute.*
- » *Gaur egun dauden laguntzak eta "aholkularitza" komertzioari zuzenduta dago bakarrik.*
- » ...

Dirulaguntzak

- » *Dirulaguntzak eta hitzarmenak falta dira.*
- » *Baliabide ekonomikoak: dirulaguntzak edota hitzarmenak.*
- » *Lanabes ekonomiko falta dago, diru laguntza zuzenak edo zeharkakoak.*
- » ...

Esandako horiek guztiak dira elkarriketatu ditugun herriko kulturgile eta sortzaileek aipatutako eta identifikatutako beharrak.

SOLUZIO POSIBLEAK

Haien jarduna errazteko eta sustatzeko honako soluzio posibleak aipatu dituzte elkarriketatuek. Halaber, egun abian dauden eta baliagarriak diren ereduak ere aipatu dituzte kafe-hartzeetan, Praktika onen adibideak atalean jaso ditugu horiek.

1. Espazioen kudeaketa

Espazioaren arazoari konponbidea emateko honako soluzio posible hauek identifikatu dira:

Lokalak egokitu eta elkarte eta eragileei esleitu

- » *Lokalak egokitu.*
- » *Lokalak herriko elkarte eta eragileei esleitu.*
- » *Ensaio gelak egokitu eta gehitu.*
- » *Egokitu gabe baldin badaude, eragileek beraien beharretara egokitu ditzakete.*

Udaleko espazioak berrantolatu eta horien erabilera sustatu/erraztu

- » *Kultur Etxea: gela eta aretoak herritarren eskura jarri.*
- » *Mercero aretoa: esposizioak sustatu eta atezain lana udalaren esku jarri.*
- » *GazteLekua: berrantolatu eta erabiltzaileekin batera beharrak identifikatu.*
- » *Oriako kaperari erabilera eman behar zaio.*
- » *Gaur egun dauden espazioen zerrenda osatu bat egin behar da.*
- » *Musika eskola duina behar da.*

Agenda konpartitua sortu

- » *Agenda eguneratua osatu espazioen erabilerarako.*

Erabilera anitzeko espazio partekatuak sortu: elkarguneak

- » *Sortzaileak elkartzeko espazio bat sortu, elkarlanerako nahiz bakarkako lanketa egiteko.*
- » *Herrian ofizina funtzioa edota tailer izaera duen espaziorik ez dago, funtzio askotarako espazioak falta dira.*
- » *Ekintzaileak beraien jarduna aurrera ateratzeko espazioak behar dira.*
- » *Elkargune bat falta da.*
- » *Sorkuntza espazio partekatuak behar dira beste talde batzuekin, sinergiak sortzen ditu.*

2. Herriko kulturgile eta sortzaileekin harreman zuzena eta kudeaketa partekatua

Herriko kultur eragile, kulturgile eta sortzaileek udalarekin duten harremana hobetzeko eta elkarlana sustatzeko honako hauek aipatu dira elkarrizketetan.

Saretzea eta koordinazioa

- » *Koordinatzailearen figura indartu espazioen banaketarako eta agendaren antolaketarako.*
- » *Kultur elkarteen arteko koordinazioa sustatu.*
- » *Herriko kultur eragileen mapa osatu eta aurreikuspenak egin: zein banaketa den egokia, programazioa osatzean elkarteen arteko elkarlana sustatu eta aurreprogramatu...*
- » *Sortzaileak saretzeko eta elkarezagutzeko baliabideak jarri.*

Datu basea osatu

- » *Herriko sortzaile, ekintzaile, artista.. datu base eguneratua osatu.*
- » *Datu base hori baliatu herriko programaketa egiteko.*

Herriko programazioan eta ekimenetan herritarrak kontuan izan

- » *Artisau azoka egiten denean herriko artisauekin harremana egin eta parte hartzera gonbidatu.*
- » *Kultur programazioan kontuan hartu herriko sortzaileak.*
- » *Udaletik formakuntza, hitzaldi eta tailer formatuak antolatu herriko sortzaileak kontuan izanda (hau da, argazkilaririk badugu herrian argazkilaritza tailerra antolatu herritarrekin batera).*
- » *Emanaldiak sustatu herriko taldeek jotzeko aukera izan dezaten. Kanpoko kontzerturen bat dagoenean ere, oholtza herritarrekin partekatu.*
- » *Programazio politika bat sortu, herriko taldeek haien lanak plazaratzeko aukera bermatuko duena.*
- » *Amateurrei herrian plaza hartzeko aukera eskaini.*
- » *Udalak herritarrekin elkarlanean kudeatu bai espazioak eta baita agenda kulturala ere.*
- » *Egonaldiak eta deialdiak eskaini herriko sortzaileei: estreñoak espazioen truke, esaterako.*
- » *Erabiltzaileen balorazioak jaso etengabe eta horien arabera egokitu eta antolatu.*

Udalak herritarren zerbitzura egon behar du

- » *Administrazioaren borondatea.*
- » *Langileen lan baldintza duinak.*

3. Heziketa, pedagogia eta sentsibilizazio tailerrak

Kulturgintzari baliorik ematen ez zaiola aipatu dute parte-hartzaileek. Kulturari ere dagokion trataera eman behar zaio (Lasarte-Orian kirolari ematen zaiona, esaterako). Horretarako, honako proposamen hauek egin dituzte:

Informazioa eman

Formakuntzak eskaini

- » *Sentsibilizazio tailerrak egin.*
- » *Ikastaroak eskaini.*

Kultura jendeari gerturatu

- » *Pedagogia egin eta kulturari balioa eman.*
- » *Kirolari ematen zaion trataera eman kulturari.*

4. Baliabide ekonomikoak

Baliabide ekonomikoei dagokioenez, aurrekontua igotzearen beharra azpimarratu dute. Horrez gain, haien jarduna aurrera eramateko baliabide hauek eskura izatea lagungarri dela azaldu dute:

Diru-laguntzak eta bekak

Kontratazio zuzenak

Lehiaketa eta sariak

5. Digitalizazioa eta komunikazioa

Herriko sortzaile eta kulturigileei zabalpena eman

- » *Komunikazioan eta lanen zabalpenean lagundu.*
- » *Erakuslehiak eskaini.*

Tresna digitalak sortu eta erabilera eman

- » *Herriko agenteen agendak barnebilduko dituen baliabide digitalak sortu.*
- » *Tratu On Bat webgunea berritu.*

6. Aholkularitza

Aholkularitza eta formakuntzak eskaini

- » *Formakuntzak eskaini: fakturazio eta ordainketak.*
- » *Aholkularitza zerbitzua eskaini ekintzaileentzat (burokrazia, harremanak, sarezea...).*

7. Udal proiektuak eta udal prozedurak

Proiektuak sortu

- » *Epe luzerako perspektiba duten proiektuak egin, irekiak eta egoeraren arabera moldatuko direnak.*
- » *Formula berriak asmatu.*

Udal prozedurak finkatu

- » *Prozedurak behar bezala zehaztu eta horren berri eman herritarrei.*
- » *Udala eta herritarren arteko komunikazioa erraztu.*
- » *Eskaeretakako metodologia eraginkorra sortu: dossier bat.*

Administrazioaren malgutasuna

- » *Tramitazioak erraztu eta malgutu.*

PRAKTIKA ONEN ADIBIDEAK

- » *Usurbileko lokal eta espazioen ereduak: Coworking-a eta lokalak.*
- » *Potxoenea (Usurbil): erabilera anitzeko espazioa.*
- » *Musika taldeek ensaiatzeko Alegiako ereduak. Bateria montaturik egoten da talde guztientzat, baliabide teknikoak bertan daude (amplia, kableak eta mikrofonoak ezinbestekoak dira). Ordutegi zabala dute eta erabilera “irekia” da.*
- » *Billabonako teknikariak taldeekin batera lan egiten du eta haien beharretara egokokitzen da.*
- » *Tratu on batekimenaren baitan erakusleihen proiektua geldirik dago, baliagarria da eta martxan jarri beharko litzateke.*
- » *Arte-Eskola (Orereta).*
- » *Pasaia eta Hernanin, esaterako, musika eskolan bandak sortu dituzte abiapuntu gisa.*
- » *Kultur Bira (Usurbil).*

EH BILDUREN FUNTZIOA

Elkarriketetan soluzio posibleez gain, EH Bilduri erreferentzia eginez, oposizioan eragiteko honako eskakizun hauek ere jaso ditugu:

- » *Udalean kezka eta zalantza horien inguruan kritika handiago egin.*
- » *Diagnostiko honen berri eman.*

KULTURA SARETZEN

SORTZAILEAK-IDAZLEAK

Gazte sortzaileak
Amane Otaegi
Idoia Telleria
Ane Labaka
Txakur Gorria
Intza Alkain
Huegun
Sara Etxeberria
Jone Zabala
Miren Cuerdo
Janire Arroyo
Uxune Iparragirre
Karmele Koöl Studio
Joxe Kruz Labaka
Maidier Oiartzabal
Mikel Bermejo
Pablo Barrio
Harkaitz Cano
Idoia Garces
Itziar Rozas
Bea Egizabal
Enara Ilegi
Eneko Oroz (sare sozialak)
Harresi
Aintzane Usandizaga
...

ELKARTE KULTURALAK

Ttakun
Jalgune
Bertso eskola
Arahma (elkarte islamikoa)
Literatur txokoa
Okendo Zinema Taldea
Decebal (errumaniarrak)
Sahararen Lagunak
Semblante Andaluz
Akugba (nigeriarrak)
Islada Ezkutak
...

ANTZERKIA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Kukuka
Formol
...

MUSIKA

Alboka abesbatza
Xumela
Zero Sette
Ttiriki Ttarraka
Dinbi Banda
Kinada
Rukula
Makulu Ken
Joseba Tapia
Asgarth
Maialen Aristegi
Mora – Tokero (aita-semeak) - Aimar
Arrotzak
Aroa
Alain eta Naken
Skakeo
Julen Basterra (Sormen)
Lasarte-Oriako txistulari taldea
....

DANTZA

Erketz
Amaia Gonzalez
Oriako Sorgin Dantzaren Lagunak
Muxikoak
Kukuka
...

KULTURA SARETZEN



KIROL ELKARTEAK

Ostadar SKT
Ipar martxa
Texas
Buruntzaldea IKT
Kenpo
Kenshu
Saito
Intza
Lasarte-Oria Trail
San silvestre
Trinko
Txirrindularitza eskola
Patinatzaile taldea
LOTME
Eguzki
Emakumezko eskalatzaileak
...



AUZO ELKARTEAK

Zabaleta Auzolan
Sasoeta
Oztabide (Arranbide)
La Esperanza
...



ELKARTE GASTRONOMIKOAK

Xirimiri
Arrieskalleta
Udaberri
Intza
Ttakunenea
Buruntzazpi
Lasartearrak
Extremeña
Saustatxo
Semblante Andaluz
Palomo Linares
...



HIRUGARREN ADINA

Biyak Bat
Danok Kide
Zumaburuko zahar egoitza
...



 ehbildulasarteoria
 lasarteoriaehbildu
 ehbildulasarte
 683 319 821
 lasarte-oria@ehbildu.eus
 ehbildulasarteoria